



PESTABURU

Antonio Maria Labaien

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (III)*, Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienPestaburu.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PESTABURU

(ERRIKO JAIK)

*(Escenificación a modo de ballet
del Canto II de Euskaldunak)*

ORIXEren EUSKALDUNAK Poematik antolatutxiko
ANTZERKI-JOLASA

Por Antonio Labayen

ANTZEZLARIAK

MIKEL

GARAZI

GORRITXO

KOXKO (talogillea).

OTXANDA (ikazkiña).

BELTZA (bertsolaria).

ZAMARGIN (plaza-gizona, zaldibitarra).

PONTXO (txistulari-danbolinteroa).

Agintari, neska-mutil dantzariak eta jende xea.

(Uitziko Iturri-aundi, aska ta guzi inguruan. Alde batera Lasalde etxea; bestera gurdibidea. Urrutira belardi ta basoak. Illunabarra da. San Mikelen aurreguna. Erriruntz doaz egurgille, ikazkin eta artzaiak. Auetako bat ardi-zar bat sorbalda gaiñean daramala igaro bedi; beste bat bizkar gaiñean zagi-ardoa dula.)



LENBIZIKO ATALA

I

OTXANDA TA KOXKO

(Bata ikazkiña beltz-beltz egñia, ortzak bakarrik zuri ditula agertu bedi. Bestea talogillea bizkorrean sakuto bat artairiñez zamatua). (Iturri aurrean atseden artzera geldi bitez).

KOXKO: Nere saku onek iriña ezik beruna ote dun dirudi. *(Lurrean utzi ta esku-gibelaz izerdia txukaturik)*. Errian sartu aurretik deskan-tsu pizka bat artu bearko dugu. «Koxko» talogillea gizon dala oraindik erakutsi nai diet uitziarrai. Ainbeste urte dira pestaburura etortzen naizena! *(Eseriaz)*.

OTXANDA: Nik bederen arpegi garbiaz agertu bearko dut. Bestenaz ez naute ezta etxeokak ere ezagutuko. *(Arpegi garbitzen asiaz)*.

KOXKO: *(Geldi eraziz)*. Zaude unetxo bat; trago edan dezadan ura zikindu baiño lenago. Egarritu naiz.

OTXANDA: Ez dago beldurrik gizona. Bada biontzako aña: garbitzeko... ta edateko... Onetarako obe duzu Peraltako ardoa.

(Koxko edaten ari dan bitartean. Otxandok musua prexkatu ta garbi beza).

KOXKO: Bapo! Orain pestarako modun gaude! *(Otxandari begiratuaz)*. Beste itxura duzu, onela andrearengana agertu zaitezke. Pozik ikusiko zaitu eta naski bazkari ta otordu on batzuek jarriko dizkitzu.

OTXANDA: Betikoak!

KOXKO: Artairiñez urri badabil, ibil, saltzen al diot nai aña.

OTXANDA: Berriz taloa? naiko jan dut txabolan! Okela saltsan eta erreka naigo ditut.

KOXKO: Ez zera gabe geldituko pestaburutan. Ardi zaar bat bederik izanen duzue etxean.

OTXANDA: Uste nuke! Gure etxea urtean bi bider arategi: txerria iltzeko-an eta pesta aurregunean.

KOXKO: *(Parregiñez)*. Ez dago gaizki esana! *(Isilunea) (bideruntz begiraturik)*. To! Begirazu nor datorren! Beltxa bertsolaria!

OTXANDA: Orrek ere ez du utsegiten. Nun pesta an «Beltxa»... Ez dut beiñere ikazkintzan ikusi...

KOXKO: Ala da. *(bideruntz begiraturaz)*. To ara bestea! «Zamargin» zaldibitarr...

OTXANDA: Ori eltzen danean apustu ta partiduak izanen diran siñale. *(Elkar agurturik)*.

II

LENGOAK, BELTZA ETA ZAMARGIN

BELTZA: Jainkoak arratsaldeon dizuela!

ZAMARGIN: Kaisio jaunak! Egoki?

KOXKO: Asnasa artzen. Zuek ere eldu zaizte.

OTXANDA: Pesta usaiera oiek e'... urtero bezela! Ez al da ala Beltxa?

BELTZA: Bearko uitziarrok besta eginen baduzue... Bai Otxanda.

Usaiakin bakarrik ez nike geldi nai. Ik ere muturra garbitu duk besta modurako. *(Par dagite bestea)*.

ZAMARGIN: Eguraldia ere garbitu da. Egoaize txinta ote datorren apustutarako giro izan dedilla.

OTXANDA: Probintzianoak *(giputzak)* su eman gabe ere mutillak gaituzu emen jokuak egiten... eta galtzen.

KOXKO: Ez duzue errez leitzarrai irabaztea.

BELTZA: Guk bai ez dugula deus irabazten iturri ondoan egonda... Burutik berakoa geienez. Goazen lenbaitlen ostatura. Gosetuxea nago eta ardi-loreak izanen dira jaki, apari egiteko. Aurrera probintziano!

ZAMARGIN: Apari garai arte badegu astia. Emengo esteki-sopa ta arraultz-odolkiak Zaldibiko monteiuen antzekoak.

BELTZA: Ardikia ez dakit nungoa ote dan ohea, baiñan Peraltako ardoango sagardoa baiño maitego dudala bai! Arranetan.



ZAMARGIN: Gipuzkoan ere ez gaude ardo paltan. Napparoko erriberak bialtzen digu edan ala. Geitxo ere bai! Goazen bada gure bidetik.

KOXKO: Elkarrekin joanen gaituzu adiskide. Indartu bait naiz. (*Berriz sakua leporatuaz*).

OTXANDA: Eup! Iturriko ura ona duzu musua garbitzeko baiñan ez indar emateko.

BELTZA: Jakiña! (*Bijoaz*).

III

PONTXO TA ESKALE BAT

*(Txistularia danbolin dindil gorriduna gerritik zintzilik dula.
Eskalea oi duten itxuran. Biok iturri ondoan eseri bitez).*

PONTXO: (*Jardunean*). Zu ere pestara? eskale?

ESKALE: Bai danbolin jauna. Beti ere egun auetan eskuzabalago izan oi bait dira jendeak...

PONTXO: Emanen dizue zintzur eta biri..., eta txerri anak!

ESKALE: Ez da sasoia. Praileak eraman zituten guziak.

PONTXO: Zerbait eroriko zaizue ordea etxe guzietan esan ala «Ave Mari»...

ESKALE: Ori bai!

PONTXO: (*Sakeletik txanpona ateriaz*). Torizu bada zortziko bat!

ESKALE: (*Eskerrikasko! artuaz*). Noan orain lenbaitlen errira beste norbait aurretu ez zaidan. Eskaleak bestara beleak sarraskira aiña biltzen bait gaituzu. (*Bijoa*).

PONTXO: Zoaz ondotoxo! Ni emen gelditzen naiz. Atsa estutu zait eta aspoak eta ezpaña ondo bear ditut pestetarako.

IV

PONTXO, EMAKUMEZKO TA NEXKA-MUTILLAK

(Pontxok kolkotik txistua atera beza eta ots luze zorrotz batzuek atera bitzaio leiaketa gisan). Piiiii! Soñua enzundakoan baserriko nexka-mutil eta gero Emakumezko batzuek agertu bitez).

NEXKA-MUTILLAK: Pontxo! Danbolin eldu da! Txistularie!

BATEK: Zerbait jo zazu Pontxo jauna, dantza gaitzen!

PONTXO: Ea bada onoko doñu au dantzatzan badakizuen. (*Aita Donostiak bildutako aur-dantza jotzen asi bedi ta neska-mutikoak inguruan dantzatzan*). (*Ontan ari dirala iruzpalau andre-emakumezko, suillak eta sukalde-ontziak buru gañean dituztela sartzen dira. Auentzat beste soñu bat joko du dantzatu dezaten. Ballet... Moduko-dantza bukatutakoan emakumezko batek dio*).

EMAKUME: Sar zaitte gurera mokau bat artzera. Apaitera geldi nai baduzu zerbait izanen duzu. (*bijoaz*)

V

GARATZI ETA MIKEL

MIKEL: Jaiak bezperatik ezagun dira.

GARATZI: Ala da Mikel. «Pontxo» Zubietako danbolin eldu da errira.

MIKEL: Txistu ta tuntun otsa entzun dut lanean ari nintzala...

GARATZI: Emen aritu bait dira dantzan.

MIKEL: Biar izanen da gure txanda. Soka dantzan bikotea egingo bage-nu...

GARATZI: Pozik beste batek ez badizu artzen aurrea.

MIKEL: Garaiz esanen diot norbaiti: «ekarrak Garatzi».

GARATZI: Beste norbait nere billa lenago badator... legea-lege joan bear-kut.

MIKEL: Egonen naiz erne ala gerta ez dedin...

GARATZI: Biar arte bada, meza nagusira joanen zera.

MIKEL: Badut asmo.

GARATZI: Ordun biar artio... Banoa etxera. Amatxi kezketan zai izanen dut onezkero.

MIKEL: Ba zoaz ain aguro?

GARATZI: Berandu bait da. Adio Mikel! (*suilla buruan gañean jarrita doala*). Illuntzen asia bait da.



MIKEL: Agur (*Adio*). Garatzi (*etxeruntz doala begiraturik*). Orain bai uzten nazula illunpean. (*Bakarrik gelditutakoan eta etxeruntz begira onoko abestia kanta bezo. Euskaldunak VIII.*)

«Azpirozko aldapatik
Albisurakoan
Trixe neukan biotza
angoxe basoan.
Zerk eman ote zidan
Albisu gogoan
iñolaz ere burutik
ezin kendu nuan» (*bijoa*).

(*Erabat illundu du ta ikulluan beiek egiten duten orrua entzuten da*).

BIGARREN ATALA

I

Erriko enparantza. Mikel Deunaren goiza da baiñan erabat illun dago oraindik. Diana edo goiz-eresaldia entzun bedi txistu soiñuz eta abesturik, ereslariak ikusten ez dirala.
(*Euskaldunak II.*)

«Jondoni Mikel
Aiza ezazu illuna
Jainko begiak
Ekar zaigun eguna»;
Arekin aitona,
Arekin amona,
pozez jauzi bitez
diteño osasuna».

(*Eresi guzia bukatuikoan emeki-emeki argitasuna egin bedi. Erriko enparantzan gaudela ikusten da. Alde batean eliza; bestean konseju-etxea. Bat batean kanpai-ots aundia. Jendea meza nagusitik ateratzen asten da. Tartean endore jauna ta beste erri-gizonak aurretik Pontxo (Danbolin) dutela. Konseju-etxe aurrean geldituko dira ta bereala mutil talde bat eskuz-esku loturik sokadantza egitera irteten dira*).

(*Aurresku ta atzeskua labur dantzatutakoan neskatxa-billa joateko unea da Sokon Gorritxo ta Mikel daude ta bakoitza bere aldetik neska billa doazen mutillai diote: «Ekarrak Garazi». Soka guzia eskutatzen da ikusleen begietatik enparantzako beste muturreko partez; eta itzulia egin dezan bitartean Beltza ta Zamarginek elkar-izketa ontan diardute*).

II

BELTZA: Noiz asten da apustua?

ZAMARGIN: Dantza atertu ala. Ez al duzu saiorik egin bear?



- BELTZA:** Zure gisa ni ere zaartu naiz orretarako. Obe dugu bazkari on bat egin apustuan irabaziaz.
- ZAMARGIN:** Or zio! Or zio! Nork irabaziko dun bagenek. Bestela goseak gelditza ez duk atsegin.
- BELTZA:** Bada... nik aari-talkan Leitzarraren alde jokatzeko aal niki: ta palankan berriz Antxoren alde.
- ZAMARGIN:** Ta zera! Uste bagegorik ateratzen bada? Baraurik! Kontuz ibilli bearra dago gero...
- BELTZA:** Bai zera! Eguzkiaren azpian ez dago Leitzako Nabarko aaria puskatuko duanik. Zaspitan joka ta zaspitan irabazi.
- ZAMARGIN:** Len ere gertatu izan dira ordea okerrak. Eta Uitziko aari mutur-beltza ere piña da; ez du jan agotza bakarara...
- BELTZA:** Dirua banu zer nai jokatu nuke leitzarraren alde.
- ZAMARGIN:** Lenbiziko talkak jo bitartean itxoin dezagun. Ea ez doan igesi.
- BELTZA:** Orduan guzia ikusia dago, ez duzu arkituko apustularik...
- ZAMARGIN:** Amar talka ezker leitzarrak garaitu dezake uitziarra.
- BELTZA:** Eta eunera irizten badira berriz biok geldituko dira erdi illik. Onela apustua egiten errez da baiñan ez jakien norentzat izanen den dunba zillarrez betea. Goazen ostatura ea zer nolako aizea dabillen.
- ZAMARGIN:** Ez digu kalte egingo amaiketako egiteak. Gero geroak! *(estatura bijoaz).*

III

(Txistu ta danbolin otsa berriz entzuten asiko dira ta ager bedi dantzari taldea beste muturretik. Oraingoa soken neska-mutillak naasirik datoz eta elkarrekin esku zapiz loturik. Gorritxo aurrekulari ari Garatzi ekarri diote bikotetzat ta bere aurrean dantzan ezitan doa. Mikel osteraren sokaren azken aldera dator, gogo txarrez hurrera begiratuz. Asarre-antzean zerbait esaten dio aldamenean dun mutil-lagunari. Soka guziak enparantza berriz igarotzen du ta aienatzen dira azken itzulia egitera. Bitartean Koxko ta Otxanda jardunean ariko dira).

IV

KOXKO TA OTXANDA

- KOXKO:** Zer diote gaurko balanka apustuaz?
- OTXANDA:** Ezkurrako Makilek aise menderatzen al dula Labaingo Antxo. Nai likek!
- KOXKO:** Naigo niki ba Makilek galtzen balu. Ezkurratar arro alen ez besten orrek! Zer uste ote du?
- OTXANDA:** Ua! ua! or ari uan oiuka: datorrela eguzki azpian edo belarraren gainean nere kontra joka nai dunik.
- KOXKO:** Eta Antxo agertu duk. Gaztea oraindik baiñan balankalari polita! Ansorenaren jatorrikoa izaki.
- OTXANDA:** Alde joka nai baduk or zebillek Berueteko «Txortxi» nai aña apustu arturik. Artalde osoa aari ta guzi jokatu omen dizkik Makilek baietz era guzitara bestea zapaldu.
- KOXKO:** Nere andrearen beldur ez banintz... eta jakia dirurik aski banu ezez egingo niki ba...
- OTXANDA:** Andrerik ez bagenu ta dirurik ez dunak balu amaika gauza egingo genizkie. Bitartean goazemak ostatura... Agian apustu onen bat sortu diteke. Baietz... Makilek Antxo zapaldu.
- KOXKO:** Ezez! *(bijoaz).*

V

Berriz dantzari-soka agertuko da antzeztokian. Erdira irixten diralarik aurrekulari ta lagunak zubia egiñez ozpitik beste dantzari guziak igaro arazten dituzte. Mikelek ezin gorde izango du asarra... Danboliña azken piruliru ta pandangoa jotzen asten da ta dantzariak sokatik azkaturik bikoteka dantzan ariko dira. Gero ta arin-ariño. Ontan estal-oiala erori bedi. «Beltza» bertsolaria kantuz jardungo da barne aldetik:

«Nik aditza dudanez
Leitzan mutil piñik ez;
sartuko dizute ziri



solas ederrez.
Balirade biotzez
Omen diranak itzez,
etzaitue erreko
bela ur otzez».

IRUGARREN ATALA

I

(Lenengo atalaren agertoki ber-bera. Lasalde etxe-aurea ta Iturri-aundiko aska. Illunbarra da. Triki-trixa edo Bizkai-dantzan ari dira. Otxanak zaldabai edo panderoa jotzen du ta Beltzak eten gabe bertsuak abestuaz. Sei ala zortzi neska-mutil dantzan ari dira. Garatzi, Mikel eta Gorritxo tar-tean dirala. Oiek biak elkarren leian Garatziren atzetik dabiltz).

«Kantari nago, baiño
biotzetik trixte
nik miñik daukadanik
ez du iñor uste.
Pikoaren ostoa
Itzal egiteko
ederregia zera
nekazaritzako.

Gorritirako bidean
otea latz dago...
oiñak galdu ezkerro
gizonik ez dago.
Mutil bi larri dira,
neska batengatik
bat ark jakin nai luke
ua norengatik».

II

(Soñu-jotzea amaitu da. Dantzariak sakabanatzen dira: neska-txak alde batera; mutillok bestera. Etxeko nagusiak bertsolari ta zaldabai-jotzaileari ardoa eskeintzen die. Mikel eta Gorritxo elkarren aurrean arkitzean mokoka abitzen dira).



GORRITXO: Zer duk ik neskarekin? (*Garazirengatik*). Pinpirin ori iretzat dagola uste al duk?

MIKEL: Itz ernarika asi al aiz Gorritxo? Iru egun ernari egin duk aur gaizto.

GORRITXO: Irekin alderdi gutxi izango dik, maizter etxe... mehe.

MIKEL: (*Berotuaz*). Burruka nai al duk? Eginen diagu bada; itzez aurrenik, ukabilka gero...

GORRITXO: Ez diat burrukarik aitatu baizik berak dezala aukera.

MIKEL: Naiz pobre izaki odolez i bezin euskaldun nauk.

GORRITXO: (*Sutuaz*). Isil adi, ez bai duk ez odol eta ez ondasun.

MIKEL: (*Asarre bizian*). Lauso abil! Laister ikusiko Errekaldeko Garatzi zeñentako...

GORRITXO: Tajua baduk izketa leguntzen... eta gezurrak esaten (*nardaz*). Aker buru jale!

MIKEL: Ez nazakela sutu bestela atzaparretan purrukatzen al aut (*Gorri-txorengana joanez jo nairik*).

(Neskatzak oiu ta karraxi atera bezate Ai! ai! ai! ta Gorritxo ikaraturik igesi doa. Etxenagusi, Otxanda ta Beltza paketu nairik sartzen dira).

ETXE-NAGUSI: Ez dugu burrukarik bear. Pesta burutu da. Zoazte guziok etxera!

OTXANDA: Ederki esana!

BELTZA: Oiean oztuko zaie odola. Jainkoak dizuela gabon.

(Neskatxak alde batetik mutilok bestetik doaz. Antzes tokia une batean utsik geldi bedi).

III

*(Urrundik Beltzaren abotsa entzungo da: orobat zakurraren zaunka isilean).
(Euskaldunak XII).*

«Txori banintz, bele banintz
joan nindaite airean

usoño hura nik
arrapa niro
aizean edo lurrean
eta bestela
sar nindaiteke
haren usotegian».

(Goiko balkoiaren leioa idikiko da ango argitara Garatzi azaltzen dala. Ao-txistua berezi bat entzungo da Mikelek aterea leio-petik. Elkar zapi zuriez agurtuko dute ta berriz ilunpeta isilean omaitzen irudia).

OIALA ERORTZEN DA